



**LEGAZPIKO
UDALA**

**BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA,
LEGAZPIKO BIKUÑA KIROLDEGIAN SALBAMENDU- ETA SOROSPEN-LANAK EGITEKO ETA
URETAKO JARDUERAK ETA IKASTAROAK ESKAINTZEKO ZERBITZUA PROZEDURA
IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO**

1.- Kontratatzen betebeharra:

Zerbitzua oinarri hauetan jasotako baldintzen arabera eta interes publikoarengatik Administrazioak oinarri horietan sar ditzakeen aldaketan arabera eskaintzea. Aldaketak emanez gero eta kalte ekonomiko errealak eta ebaluagarriak eman badira, dagokion diru-konpentsazioa jasoko du kontratistak.

- Kokapenari dagokionez, esparru osoa kontrolatzeko moduan eta erabiltzaileek erraz ikusteko moduan egongo da beti.
- Bera izango da igerilekua dagoen esparruan sartuko den lehena eta irtengo den azkena. Irteten aurretik esparrua ikuskatuko du eta bertan erabiltzailerik ez dagoela ziurtatuko du.
- Bere lanorduetan ezingo du igerilekua dagoen esparrutik alde egin.
- Ezingo du telefonoa helburu partikularretarako erabili eta ezingo ditu tableta elektronikoak, ordenagailu pertsonalak,... erabili. Modu berean, ezingo du egunkaria edo aldizkariak irakurri eta ezin ditu gurutzegramak edo arreta galaraziko duen beste jarduerarik egin.
- Igerilekuak erabiltzeko araudia beteko dela zainduko du, baita osasun-autokontrolaren plana ere.
- Horrela, etengabe baloratu, zaindu eta erregulatuko ditu oinarrizko parametro hauek: tenperatura, pH, kloroa, uraren tenperatura, giroan dagoen hezetasuna, uraren uhertasuna eta maila.
- Beti ikusteko moduan egongo da eta ikusarazi egingo da.
- Txapelketetan, kirol-probetan, haur-jolasetan, jaialdietan,... indarrean dagoen araudia eta barne-arauak betearaziko ditu.
- Salbamendu- eta sorospen-lanetan agintzen duena denez, zerbitzua bertan behera uztea eta erabiltzaileak esparrutik ateratzea erabaki dezake.
- Pertsonaren bat artatu behar duenean edo botika ontzira joan behar duenean edo, esparruan lankideren bat baldin badago laguntza eskatuko dio esparrua zaintzen geratzeko.



**LEGAZPIKO
UDALA**

- Lanpostuan txanda hartu behar izanez gero, lankidea etorri eta bere eginbeharrak egiteko prest egon arte eta egon daitezkeen berriak jakinarazi arte ezingo du lanlekutik alde egin.
- Une zehatzetan teknikariei lagunduko die. Ikasleen joan-etorriak, materiala,... eta abar.
- Igerilekuaren autokontrol-planean jasotakoaren arabera, adierazgarria izan daitezkeen edozein gorabehera jaso eta jakinaraziko du.
- Zerbitzuko kontrol-zentroari jakinarazi beharko dio esparruan dauden argi-beharrak. Horretarako, energiaren kontsumo iraunkorra zainduko du eta, beharrezkoa izanez gero, argiak, berogailua, .. eta abar itzaltzea eska dezake.
- Zerbitzuko koordinatzailearen bidez zentroko zuzendaritzarekin jarriko da harremanetan edozein gorabeheraren berri emateko edo zerbitzua hobetzeko edozein iradokizun eskaintzeko.
- Lanlekuan erabiliko duen arropa egokia eta bere eginbeharra egiteko adierazgarria izango da (bainujantzia, kamiseta eta oinetakoak). Igerilekua dagoen esparrura ezingo da kaleko arroparekin sartu eta ezingo da bertan aldatu.
- Aintzat hartu beharreko alor nagusiak:
 - Kontrola:
 - Igerileku bakoitzean eta horietako egonleketan zenbat pertsona dauden kontrolatuko du, ezarritako gehieneko pertsona-kopurua gainditu ez dadin. Kopuru horiek edukiera kontrolatzeko fitxan jasoko dira.
 - Igerilekuen egoera kontrolatuko du
 - Horretarako, egoki iritziko zaionean, osasun-araudiaren arabeko neurketak egingo ditu.
 - Igerilekuetan eta alboko esparruetan gertatzen den edozein gauzaren berri emango du.
 - Bere zerbitzuko materiala zainduko du eta erabiltzaileek material hori nola erabiltzen duten kontrolatuko du.
 - Begiraleek, kirol-teknikariek,... material hori leku eta modu egokian gordetzen dutela kontrolatuko du.
 - Erabiltzaileak baimendu gabeko materialarekin sartuko ez direla zainduko du, horretarako zuzendaritzaren berariazko baimena dagoenean salbu.
 - Ezingo da kaleko arroparekin, oinetakoekin, poltsekin,... sartu.



**LEGAZPIKO
UDALA**

- Instalaziora sartuko diren taldeak:
 - Taldeak, haren ardura izango duen heldu batekin egongo dira igerilekuan.
 - Esandako eremua erabiliko dute.
 - Esandako ordutegian.
- Igerilekuko kaleen erabilera arautuko du, honako irizpideen arabera:
 - Instalazioko zuzendaritzatik jaso dituen ohartarazpenak.
 - Saioak eskaintzeko begiraleek izango dituzten beharrak.
 - Norberaren irizpidea eremua ondo erabili eta aprobetxa dadin.
- Botika ontziko materiala zaindu eta eguneratuko du.
 - Ez daitezela iraungitako produktuak egon.
 - Egunero kontrolatuko du kanpo-desfibriladore automatikoa egunero kontrolatuko da.
 - Bukatzeaz dagoen materiala antzemango du berria eskatzeko.
- Zaintze-lana
 - Arrisku handiagoa duten ikastaroak arreta bereziarekin zainduko ditu: hastapen-ikastaroak, haurrenak, behar bereziak dituzten helduenak, 3. adinekoenak,...
 - Arreta berezia jarriko du jendea oinutsik ibil ez dadin edo ur barruan nahiz kanpoan lasterketak egin ez daitezen, bertako pertsonen segurtasuna arriskuan jarriz.
 - Oro har, erabiltzaileen edo soroslearen beraren segurtasuna arriskuan jar dezaketen jarduerak egingo ez direla zainduko du. Horrezaz gain, materialak egoera onean mantenduko direla zainduko du.
 - Erorketa desegokiko jauziak, taldeetan, behin eta berriz,....
 - Bultzadak,
 - eta abar.
- Osasun-arreta
 - Igerilekuan nahiz kiroldegian gertatuko diren gorabehera guztiak artatuko ditu, eta gorabeheren, istripuen eta salbamenduen parteak beteko ditu.
 - Gorabeheraren bat, istripuren bat, akatsen bat,... gertatuz gero, ezarrita dagoen jarduketa-protokoloa beteko du eta horretaz arduratuko da. Horrelakoetan, honako datuak jasoko ditu beti: ordua, pertsonaren datuak eta gertatu denaren laburpena.
- Prestakuntza
 - Ur-soroslearen titulua eskuratuta izatea, edo antzeko edo goragoko titulazioa. Horrezaz gain, bi urtean behin birziklatze teoriko-praktikoa egingo du. Bestalde, etengabe garatzen ari den gai denez, zerbitzua prestatuko dutenek ezagutzak



**LEGAZPIKO
UDALA**

zabaldutako egin beharko dituzte eta metodo eta teknologia berriak ikasi (kanpo-desfibriladore automatikoa,...). Teknikariek dagokion prestakuntza jasoko dute.

Igeriketako ikastaroak emateko esleipendunak izendatuko dituen langileek igeriketa irakasteko eta hobetzeko gai direla egiaztatuko duen gutxieneko titulazioa izan beharko dute.

2.- Administrazioaren betebeharrak:

A.- Instalazioen erabilera ahalbidetzea.

B.- Erabakitako ordaina ordaintzea.

3.- Ordutegia:

Zerbitzuaren ordutegia Administrazioak zehaztuko du. Oinarrian, ondoko egutegia bete behar da:

1. IGERILEKUA

- Astelehenetik ostiralera, 14:15etatik 21:00etara. Abuztuan 10:00 – 19:30
- Larunbatetan, 09:00etatik 12:45era eta 15:30etik 20:30etara. Uztailan 09:00 – 20:30. Abuztuan 10:00 – 19:30.
- Igande eta jaiegunetan, 09:00etatik 13:45era. Uztailan 09:00 – 20:30. Abuztuan 10:00 – 19:30.

2. IGERILEKUA

- Astelehenetik ostiralera, . Ekainean (15etik aurrera) eta irailan (15erarte) biak barne, 10:00etatik 20:00etara.
- Larunbatetan, 10:00etatik 12:45era eta 15:30etatik 20:00etara. Ekainean (15etik aurrera) eta irailan (15erarte) (biak barne), Uztailan eta Abuztuan 10:00etatik 19:30etara.
- Igande eta jaiegunetan, 10:00etatik 13:45era. Ekainean (15etik aurrera) eta irailan (15erarte) (biak barne), Uztailan eta Abuztuan 10:00etatik 19:30etara.



**LEGAZPIKO
UDALA**

- Langile finioen ordezkapenak (oporak, baimenak, lizentziak, baja-egoerak,....)

Langile finioek bere gain hartu ez dituzten igeriketako ikastaroak egonez gero, sorospentlanak egingo dituen bigarren pertsona bat egotea eskatuko da.